



HANDIZKAKO ARRAIN SALTZAILEEN AZOKA NAGUSIKO ZERBITZU, JARDUNBIDE ETA BARNE ERREGIMEN ARAUDIA

I. ATALBURUA.- Xedapen Orokorrak.-

1. artikulua.-

Handizkako Arrain Saltzaileen Azoka Nagusia, Vitoria-Gasteizko Udalarenak baitira bertako instalazioak, Mercavitoria Pescados, S.L. elkarrekin kudeatu eta ustiatzen du emakida administratibo erregimenean.

2. artikulua.-

Bertan egokitutako saltokiek, instalazioek eta eraikineko gainerakoek osatzen dute, guztiek batera, Arrain Azoka Nagusia; orobat, zerbitzu osagarriek eta onibarreko lurrek, guztiak ere Ehari-Gobeoko industri poligonoko elikagai eremuan baitaude kokatuta.

3. artikulua.-

Arrantza produktu freskoak handizka saltzeko da azoka, eta kontsumitzaileen interesen alde jardutea du xede, ondorengo helburuak lortze aldera, hain zuzen ere:

- a) Hirian arrain freskoen hornikuntza bermatzea, halakotzat joko baitira gizakion kontsumorako diren arrain-produktuen araudi tekniko-sanitarioan hala izendatutakoak.
- b) Salgai jarritako produktuen kalitatea eta aniztasuna bermatzea, baita pisuka edo neurriak saltzen direnak zintzo saltzen direla ere.
- c) Lehia librea sustatzea, prezioak merketzea lortzeko, handizka saltze eragiketa guztiak Azoka Nagusian bilduz.
- d) Janarien osasun eta higiene kontrola dela-eta indarrean dauden arauak oro betetzeko sistema ezartzea.

4. artikulua.-

Azokaren gestioa eta ustiapena Mercavitoria Pescados, S.L. elkarrekin esleitu zitzaizkioneko 1996ko ekainaren 2ko udal erabakia oinarritzat harturik taxutu da Araudi hau, eta orobat kontuan izanik ogibide eta azoken alorrean nahiz janari galgarriak merkaturatzeari dagokionez udalek dituzten eskumen eta ahalmenei buruz indarrean diren lege-arauak.

5. artikulua.-

"Arrain produktu" esaten denean, araudi honi dagokionez, hauxe ulertu behar da: arrain eta marisko jangarri espezieak oro, itsasokoak nahiz ur gezatakoak izan, osorik nahiz zatituta egon, baita horien edozein zati ere.

"Arrain produktu fresko" esaten denean, berriz, honako hau ulertu behar da: harrapatu zenetik inolako kontserbazio prozesurik jasan ez duena. Ez da kontserbazio prozesutzat joko odolustea, buru-kentzea eta errai-kentzea, ezta, ez galtzeko, gatza edo izotza botatzea edo hotzean edukitzea ere.

6. artikulua.-

1.- Handizka saltzeko udalerrira sartzen diren arrain produktu freskoak oro nahitaez aurkeztu beharko dira Handizkako Arrain Saltzaileen Azoka Nagusian.

2.- "Arrain produktu izoztuek" izan lezakete bestelako merkaturatze biderik, nahiz eta azoka honetan ere saldu ahal izango diren.

7. artikulua.-



1.- Aurreko artikuluko 1. atalean xedatutakoa gora-behera, betebehar horretatik salbuesita geratuko dira izaera orokor edo bereziko lege-xedapenen bitartez araututako bestelako hornikuntza-bideetatik sartutako produktuak, baldin eta jarduera hori legedi hartan galdatutako betekizunetara egokitzen bada.

2.- Aurreko atalean aurreikusitako baldintzak bete gabe era horretako janariak udalerritik kanpo erosten dituzten txikizkariak Azoka Nagusian aurkeztu beharko dituzte, ikuskatuak izan daitezten eta hiria behar den kontrol sanitarioari eutsiz hornitzen dela bermatzeko aukera emango duten aitortpenak egiteko.

8. artikulua.-

Debekatuta egongo dira erabat, udalerrian, handizkarien banaketa-biltegiak, azoka ko instalazioetatik kanpoko "arrain produktu fresko"ak gordetzeko direnak, salbu eta Gasteizko Udalak halakorik baimentzen duenean, lege-xedapenen ildotik.

9. artikulua.-

Debekatuta egongo da erabat horrelako janariak hirigunean modu ibiltarian saltzea, eta hirigunetik kanpo bakarrik baimenduko da halako salmenta, une bakoitzean indarrean den araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen direlarik.

10. artikulua.-

Horrelako janariak aurreko artikuluetan aurreikusitakoa hautsirik sartu, banatu, hornitu nahiz saltzea arau-haustetzat joko da, eta legez baimendutako mugara arteko isuna jarriz zigortuko da, hutsegitearen larritasuna, salatutako eragiketaren bolumena eta sor litza-keen kalteak aintzat harturik.

Halaber, eskumena duten agintariak delako janari horien kautelazko bahiketari ekingo diote aurreko paragrafoan adierazitako egoeretan, dekomisoa beharrezko den erabakitzeko, kasu bakoitzeko zer-nolakoak eta aplikagarri diren lege-arauetan xedatutakoa kon-tuan harturik.

11. artikulua.-

1.- Udalari eta beste administrazio batzuei dagozkien aginte, polizi eta ikuskaritza higieniko-sanitario zereginak gora-behera, Mercavitoria Pescados, S.L ri dagokio azokaren anto-lakuntza eta funtzionamendua; horretarako, egokitatz jotzen duena xedatuko du Araudi honetan aurrekusi gabekoei dagokienean, baita beronen garapenerako beharrezko diren arau partikularrak ere.

2.- "Mercavitoria Pescados, S. L."k bere gain gordeko du behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio Araudi hau aldatzeko ahalmena, onesteko behar izan den bide beretik; Azokaren erabiltzaileek ez dute, hori dela eta, erreklamaziorik egin edo kalte-ordainik jasotzerik izango.

12. artikulua.-

1.- Azoka Nagusiak eskainitako zerbitzuengatik, saltokiez baliatzeagatik eta instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharko diren tarifak Gasteizko Udalak onetsiko ditu, enpresa emakidadunak hala eskaturik, eta azken horrek jasoko ditu, zuzenean. Urtero eskatu ahal izango dio Mercavitoria Pescados, S.L.k Udalari tarifen zenbatekoak edo egi-tura aldatzeko, eskariaren arrazoiak behar bezala justifikaturik, besteak beste kontsumo pribatuko prezioen aldakuntza.

2.- Mercavitoria Pescados, S.L.k ahalmena izango du tarifa horiek behartze prozedura administratiboaren bitartez kobratzeko.

13. artikulua.-

1.- Mercavitoria Pescados, S.L.k finkatzen dituen egun-orduetan egongo da zabalik Azoka Nagusia salmentarako; Azoka jaiegunetan zabaltzea ere erabaki lezake hark, egoera be-rezietan edo hornikuntza premiak tarteko direnean.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1999/09/17

ALHAO, 129 zk. 1999/11/03

2.- Arrainak sartzeko eta jasotzeko egin beharrekoak Mercavitoria Pescados, S. L.k finkatzen dituen orduetan egin beharko dira, eta inolaz ere ez kontratazio eta salmenta ordue-tan.

3.- Garaiz kontsultatu eta iragarriko ditu emakidadunak zabaltze ordu-egunetan egiten dituen aldakuntzak.

II. ATALBURUA.- Erabiltzaileez.-

14. artikulua.-

Araudi honetan eta aplikagarri diren gainerako lege- eta arau-xedapenetan galdatzen diren baldintza orokorrak betetzen dituztelarik Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako hartarako baimena lortzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoak oro izango dira Arrain Azoka Nagusiaren erabiltzaile.

15. artikulua.-

Azokako saltokiren batetaz baliatzeko udal lizentzia eskuratzen dutenak joko dira erabiltzaile handizkaritzat.

16. artikulua.-

Honako hauek jardun ahal izango dute azokan erosle gisa:

- a) Merkatari txikizkariak, banaka nahiz elkarte, kooperatiba edo bestetan bildurik.
- b) Kontsumitzaile elkarteak eta kontsumitzaileak berek.
- c) Irakaskuntza-erakundeak, osasun-establezimenduek, ostalaritzaren alorreko enpresek, zentro zibil eta militarrek, eta, oro har, kontsumo kolektibitateak.

17. artikulua.-

Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako ikur edo bereizgarri pertsonala erabiltzeko galda-tu ahal izango da azoka ra sartzeko nahiz bertan erabiltzaile gisa jarduteko.

III. ATALBURUA.- Saltokiez baliatzeko lizentziez.-

18. artikulua.-

1.- Saltokiez baliatzeko lizentziak kasu bakoitzerako Mercavitoria Pescados, S.L.k, indarrean den legediaren barruan, erabakitzen duen prozeduraren bitartez emango dira, eta Araudi honetan bildutako arauen, ematerakoan ezarritako baldintzen eta aplikagarri diren udal xedapenen nahiz izaera orokorrekoen menpe egongo dira.

2.- Pertsona jakin baten izenean emango da lizentzia bakoitza, ezingo du horren titular pertsona bakar batek baino izan, eta ezingo zaie inolako kargarik ezarri.

3.- Administrazioarekiko kontratazioa arautzen duten xedapenetan aurreikusitako ezintasun kasuetakoren batean ez dauden eta jarduteko erabateko gaitasuna duten pertsona natural nahiz juridikoak bakarrik ahal izango dute lizentzien titular izan.

19. artikulua.-

1.- Mercavitoria Pescados, S.L.k berak erabiltzeko hartu ahal izango ditu saltzaile handizkariak okupatu gabeko moduluak, bere dituen eskumenak errazago betetze aldera.

2.- Halaber, Mercavitoria Pescados, S.L.k zuzenean esleitu edo inori eman ahal izango dio okupatu gabeko modulu horiek erabili eta ustiatzeko eskubidea, produktuak saldu edo merkaturatzen ez bestetan jarduten duten entitateak balia ditzaten, baldin eta azoka ren interesetarako onuragarri edo baliagarri badira.

20. artikulua.-

1.- Pertsona naturalen alde emandako lizentziez horien titularrek eta ez bestek baliatu beharko dute normalean, edo haien ezkontideak, edo lehen mailako arbaso, ondorengo



edo adarretako ahaideak, beren kontura edo autonomo gisa diharduten langileentzako Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta daudelarik.

2.- Pertsona juridikoen alde emandako lizentzietz bazkideek eta ez bestek baliatu beharko dute, beren kontura edo autonomo gisa diharduten langileentzako Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta daudelarik, edo haien ordezkariak, zeinek Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartuta egon beharko baitute.

21. artikulua.-

Onartuta egongo da besteren kontura diharduten langileen laguntza; halakoak titularren edo saltokiaz baliatzen den pertsonaren manupean arituko dira, eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartuta egon beharko dute.

22. artikulua.-

Edonola ere, saltokietz baliatzen diren edo horietan laguntzen dutenek lizentzien titularrekin zer loturak dituzten egiaztatu ahal izango du "Mercavitoria Pescados, S.L."k eta egiaztatze hori gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak oro aurkez ditzatela galdatu ahal izango die. Eskatutako agiriak emandako epean ez aurkezteak, lizentzia modu irregularrean eskuz aldatu dela onartzen dela adierazi nahiko du.

23. artikulua.-

1.- Debekatuta egongo da lizentziaren titularraren eskubideak beste pertsona baten eskutara aldatzea, alokatzea edo transferitzea, besteren eskutara aldatzeaz joko baita saltokiaren titularraren izena Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren erroldan aldatzea, edo hori erakusten duen beste edozein frogabide.

2.- Titularra hil, jubilatuta edo ezintasun-egoeran gertatzen delarik bakarrik onartuko da azoka ko saltokiaz baliatzeko lizentzia- eskubideak subrogatzea, 24-28 artikuluetan aurreikusitako prozeduraren ildotik.

3.- Hala ere, saltokien titularrek baimena izango dute merkataritza- elkarteak sortzeko, beren partaidetza gehiengo delarik, eta erakunde berri hori dena delako emakidadunaren eskubide eta betebeharretan subrogatzeko.

24. artikulua.-

1.- Saltokiaz baliatzeko lizentziaren titularra hilez gero, eta heriotza-egunaren ondorengo sei hilabeteko denbora- tartean interesatuak berariaz hala eskatzen badu, testamentugileak saltokian bere ondorengo izateko izendatutako nahitaezko oinordekoaren eskutara aldatuko da delako lizentzia.

2.- Testamentugileak nahitaezko bi oinordeko edo gehiago ezarri baditu lizentziari dago-kionez ondorengo izateko, heriotza gertatzen denetik kontatuko den sei hilabeteko epean erabaki beharko dute horiek beren arteko zein izango den saltokiaren titular, eta hala jakinarazi beharko diote Mercavitoria Pescados, S.L.ri.

25. artikulua.-

1.- Baldin eta saltokiaren titularra testamenturik utzi gabe hiltzen bada, edo baliorik gabeko testamentua utzirik, edo gerora balioa galdu duena, edo bertan ez bada ageri nahitaezko oinordekorik lizentziari dagozkionetarako, edo ezarritakoak uko egiten badio oinordekotzari, ondorengo lehentasun- hurrenkerari jarraiki eskuz aldatuko da saltokiaz baliatzeko lizentzia, beti ere heriotza gertatu ondorengo sei hilabeteko denbora- tartean ondorengo izango denak hala eskatuz gero:

- a) Alarguna.
- b) Beheranzko zuzeneko lerroko nahitaezko oinordekoa, titularra hil aurreko al-dian saltokian hari laguntzen aritu dela justifikatzen duelarik.
- c) Oinordekoek, guztion arteko adostasunez, izendatutako beheranzko zuzeneko lerroko oinordekoa.
- d) Gradurik hurbileneko goranzko lerroko nahitaezko oinordekoa.



2.- Lehenetsun hurrenkera horren arabera aurretik den oinordekorik izanez gero, gainerakoek ezingo dute inolako auzirik bideratu hildakoak zuen lizentziaren titulartasuna oinordetzan hartzeari dagokionez, titulartasun hori bere gain hartu behar duenaren ezintasuna edo ukoa tarteko dela ez bada; halakoetan, Araudiaren arabera eskubiderik handiena duen nahitaezko oinordekoak delako titulartasuna eskuratzeko eskaria egin ahal izango da, eta behar den dosierra bideratuko hartarako.

26. artikulua.-

Inolaz ere, nahiz eta titular zenak hala erabakia izan, ezingo da aldeetako ahaide nahiz besteren eskuetan utzi lizentziarekin segitzeko eskubidea; hortaz, titularra hiltzen denean Kode Zibilaren 807. artikuluan adierazitako nahitaezko oinordekorik ez badago, agortutzat joko da lizentzia, eta saltokia hutsik geratuko.

27. artikulua.-

1.- Sei hilabete igarotzen direlarik saltokiaren titularra hiltzen denetik lizentzia bere esku hartzeko eskubidea duen nahitaezko oinordekoak berariaz hura eskatu gabe, edo hura oinordetzan oinordekoen arteko zeinek hartuko duen erabaki behar dutelarik epe berorretan ados jartzen ez direlarik, agortutzat joko da lizentzia, eta saltokia hutsik geratuko da.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako arrazoia dela-eta lizentzia iraungitzea gertatuz gero, Mercavitoria Pescados, S.L.k bere esku izango du, hiru hilabeteko epe luzaezinean, hura, zuzenean, hutsik geratutako saltokia ustiatzeko gaitu edo prestatuen dagoen pertsona natural nahiz juridikoari zuzenean emateko ahalmena.

28. artikulua.-

Titularra jubilatatu edo ezintasunean gertatuz gero, hiltze kasuetarako aplikagarri dena hartuko da aintzat.

29. artikulua.-

Saltokiez baliatzeko lizentziak eta subrogatzeko baimenak, kasu guztietan, 2013. urteko abenduaren 31n agortuko dira, salbu eta alde zuzenetik edozein iraungitze edo berriztatze arrazoi egokitzen delarik.

30. artikulua.-

Saltokiaz baliatzeko lizentzia agortu egingo da, eta handik eratorritako eskubide guztiak iraungiko, ondorengo arrazoi hauetakoren bat egokituz gero:

- a) Azoka deuseztu edo lekuz aldatuz gero.
- b) Emandako lizentzia bukatu edo iraungiz gero.
- c) Lizentziaz titularra baliatzen ez bada.
- d) Bertan jasotako ahalmenaz baliatzerik izateko lizentzian eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira.
- e) Erabiltzaile gisa jarduteko Araudi honetan nahiz gaia arautzen duten izaera orokorreko xedapenetan galdatzen diren baldintzak betetzeari utziz gero.
- f) Lizentzia eman zenean halakorik izan balitz hura ukatzea justifikatuko zukeen zirkunstantziaren bat egokituz gero.
- g) Lizentzia eman zenean ezagutu izan balitz lizentzia ez ematea ekarriko zukeen zirkunstantziaren bat izanez gero.
- h) Lizentzia eman eta agortu aurretik sortutako interes publikoko arrazoiengatik.
- i) Lizentzia ematea ekarri zuten zirkunstantziak desagertuz gero.
- j) Udalaren baimenik gabe obrak eginez gero.
- k) Mercavitoria Pescados, S.L.k, udalak emandako arauak nahiz kudeatze organoetatik jasotako aginduak behin eta berriro ez betetzeagatik.
- l) Mercavitoria Pescados, S.L.ren ustez ezegokia den merkataritza-jokabidea izanez gero, eta horrek kontsumitzaileei, lehiatzaileei nahiz azoka ren gainerako erabiltzaileei kalte nabarmen eta larriak sortuz gero.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1999/09/17

ALHAO, 129 zk. 1999/11/03

- m) Lizentziaren titularrak bere borondatez, berariaz eta idatziz, uko egiten badio jarduera horrekin segitzeari.
- n) Baimendutako titularraren porrotari buruzko epailearen ebazpen irmoa tarteko denean.
- o) Lizentziaren jabe den erakunde juridikoa eraldatu, besterekin elkartu edo deusezten denean.
- p) Lizentziaren jabea hilez gero, 24. artikuluan aurreikusitakoa salbu.

31. artikulua.-

Aurreko artikuluan adierazitako arrazoietakoren bat egokitzen denean ez ezik, beste hauetakoren bat egokitzen denean ere baliogabetu edo deuseztuko da lizentzia:

- a) Lizentzia alokatzea, uztea nahiz haren gain edonolako karga edo obligazioa ezartzea egokituz gero.
- b) Ezarritako tasak nahiz beste edozer dela-eta Udalari zor zaizkion diru-kopuruak ordaindu ezean; lizentzia baliogabetzeaz gain, behartze bidetik galdatu ahal izango dira diru-kopuru horiek.
- c) Esleitutako saltokia, aretoa edo salerosketarako lekua zazpi egunetik gora, jarraian, itxita egoten bada, Mercavitoria Pescados, S.L.ren iritziz horretarako arrazoirik izan gabe, nahiz eta titularrak ezarrita dauden eskubideak ordaindurik izan.
- d) Lizentziaren titularrak salerosketak, modu jarraian, esleitutako saltoki, areto edo lekuan egiten ez dituenean.
- e) Lege nahiz araudietan ezarritako betekizun sanitarioak behin eta berriro betetzen ez direnean nahiz haiek ez betetzea oso larria gertatzen denean, baita Mercavitoria Pescados, S.L.k higienaren alorrean nahiz esleitutako saltoki, areto edo salerosketetarako lekuaren nahiz langileen garbitasuna dela-eta emandako agin-
duak betetzen ez direnean ere.

Araudi honetako 30. eta 31. artikuluetan adierazitako kasuetan, Udalak baliogabetu edo deuseztuko du lizentzia, Mercavitoria Pescados, S.L.k hala eskaturik.

32. artikulua.-

Lizentzia deuseztu, baliogabetu nahiz iraungitzeak berekin ekarriko du saltokia hutsik deklaratzera, eta bost eguneko epean hustu beharko da.

Epe hori igarotzen delarik saltokia ez bada norberaren borondatez hustu, berehalakoan ekingo dio Udalak dena delakoa bertatik bidali edo botatzeari, haren kontura egin ere, eta Alkatezak adierazten duen lekuan utziko ditu salgaiak eta bestelakoak, jabeak eskuratu ahal ditzan.

Edonola ere, sortutako kalteak ordaintzeko galdatu ahal izango dio erabiltzaileari Mercavitoria Pescados, S.L.k, baldin eta saltokia, aretoa edo salerosketarako lekua ohiko erabilerara egoeran ez badago; halakoetan, erabiltzaileak jarritako bermeaz baliaturik berdindu ahal izango da kaltea.

IV. ATALBURUA. - Erabiltzaileen eskubide eta betekizunak.-

33. artikulua.-

Azokaren erabiltzaileen eskubide eta betekizunak gai horren inguruan indarrean diren xedapen orokorretan zehaztutakoak izango dira, baita Araudi honetan eta Mercavitoria Pescados, S.L.k eta Udalak ezarritako arauetan bildutakoak ere.

34. artikulua.-

Honako hauetarako izango dute eskubide saltokien titularrek:

- a) Esleitu zaien saltokiaz baliatzeko, baita Mercavitoria Pescados, S.L.k beren esku jarritako bestelako zerbitzuez ere, eta jarduera lizentzian ezarritako eran burutu ahal izateko beharrezkotzat jotzen direnez, harik eta lizentzia indarrean den bitartean.



b) Dekomiso ziurtagiria eskuratzeko, behar izanez gero jasotako salgaien kalitatea nahiz egoera egiaztatuko baitu, baldin eta erreklamazioak arauz ezarritako epe eta baldintzetan eginak badira.

35. artikulua.-

Honako betekizun hauek izango dituzte saltokien titularrek:

a) Esleitutako saltoki, areto nahiz salerosketarako lekuak irekita edukitzea eta bertan jardutea ezarritako salerosketa orduetan, Mercavitoria Pescados, S.L.k merkaturatzea dela-eta ezar litzakeen arauak betetzen dituztelarik.

b) Lege eta araudiek merkatuan burutzen den jarduerarako eskatzen dituzten agiri-rien jabe izatea, eta orobat betetzea Mercavitoria Pescados, S.L.k salerosketa jarduerarako ezartzen dituen baldintza eta formalitateak oro.

c) Garaiz ordaintzea Mercavitoria Pescados, S.L.ri Udalak nahiz esleitzailleak berak ezarritako tarifa, tasa nahiz kanonak, eskaintzen diren zerbitzuak direla eta.

d) Gai laboral eta sozialean indarrean den legedian ezarritakoa estu betetzea.

e) Salgaien sarrera eta irteera kontrolatzeko Mercavitoria Pescados, S.L.k ezartzen dituen baldintzak oro betetzea.

f) Esleitutako saltoki, areto nahiz salerosketarako lekuak ongi zainduta eta funtzionamenduan edukitzea, behar bezain txukun eta garbi.

g) Hustutako ontziak hartarako jarritako lekuetan uztea.

h) Edonolako obrarik ez egitea, ez bada alde zuzenetik Mercavitoria Pescados, S.L.ren baimena eskuratuta, eta Gasteizko Udalak hartarako lizentzia eta baimena emanda.

i) Egindako salerosketa bakoitzeko txartel bat luzatzea, non salerosketaren berri jasoko baita, eman litezkeen arauari jarraiki.

j) Azokaren interesari erantzuteko, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko direla eta interesatuari entzunaldia eskaini ondoren, kokalekua beste saltoki batera aldatzea, azoka bertan, Mercavitoria Pescados, S.L.k hala erabakitzen duenean, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

k) Azokaren nahiz osagarritzko instalazioen funtzionamenduari dagokionez Mercavitoria Pescados, S. L.k ematen dituen arauak oro betetzea, zerbitzuen hobekuntzara eta salerosketak argiago eta bizkorra izatera zuzenduta daudelarik.

l) Gizarte Segurantzako dena delako erregimenean afiliatu egoteari buruz araututa dagoena betetzea (baita laguntzaileek ere).

36. artikulua.-

Azoka osatzen duten instalazioetako saltoki baten nahiz beste leku baten erabiltzailea behartuta egongo da aseguru bat hitzartzera, bere kontura, dela beraren nahiz bere langileen jardueraren ondorioz, dela esparruan kokatutako ondasun eta instalazioez baliatzearen ondorioz sor litezkeen erantzukizunak estaltzeko.

Estaldura horren norainokoa kasu bakoitzean egokitu daitezkeen zirkunstantziak aintzat harturik finkatuko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharra bete dela egiaztatzeko, hitzartutako aseguru polizaren kopia bat igorri beharko diete erabiltzaileek Mercavitoria Pescados, S.L.ri, baita beharrezko gertatzen diren gehigarriena ere, eta orobat ordainketak egunean direla erakusten duten ordainagiriak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1999/09/17

ALHAO, 129 zk. 1999/11/03

37. artikulua.-

Hauek izango dira erosleen eskubide:

- a) Azokara sartu eta bertan egotea, Araudi honetan ezarritakoak eta Mercavitoria Pescados, S.L.k ematen dituen bestelako arauak beterik.
- b) Merkantziak kargatu eta deskargatzeko baliatzen diren ibilgailuak azokara sartzea, eta seinalatutako aparkalekuak erabiltzea, Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako xedapenei jarraiki.
- c) Egindako salerosketari dagokion txartela eskatzea.
- d) Azokako karga eta deskarga kaiez baliatzea, Mercavitoria Pescados, S.L.k adierazitako xedapenen arabera.
- e) Garaiz jakitea, aldezturik, azokaren ohiko funtzionamenduari dagozkion alderdien edozein aldakuntzaren berri.

38. artikulua.-

Hauek izango dira erosleen betebeharrak:

- a) Mercavitoria Pescados, S.L.k ematen dituen arauak oro betetzea, ibilgailuak sartu eta bertan edukitzeari dagozkiola nahiz azokaren funtzionamenduari dagozkiola.
- b) Mercavitoria Pescados, S. L.ri zerbitzu desberdinak erabiltzeagatik ezarritako tarifak ordaintzea.
- c) Mercavitoria Pescados, S.L.ri eskatzen dituen datuak oro hornitzea, azokan burutzen diren salerosketekin zerikusirik dutelarik.
- d) Azokako langileek hala eskatzen dietelarik, salerosketa txartela erakustea, eta salgaien kalitatea eta pisua kontrolatzeko beharrezko diren ikuskaritzak onik hartzea.
- e) Erositako merkantziak ezarritako ordutegiaren barruan erretiratzea.
- f) Indarrean diren lege xedapenen arabera legokiokeen beste edozein betebeharrak ere betetzea, baita Mercavitoria Pescados, S.L.k ezartzen dizkienak ere.

V. ATALBURUA.- Funtzionamendu arauak.-

39. artikulua.-

1.- Azoka Nagusirako diren arrantza produktu fresko sorta guzti-guztiek berekin eraman beharko dute igortzaileak egindako deklarazioa, edo, bestela, garraiolariak egina, hura handizkariari ematerakoan; handizkaria, berriz, behartuta egongo da horren kopia bat azokako administrazio kontrolerako zerbitzuan aurkeztera.

Deklarazio horretan zehaztuta ageriko da produktu horiek norberaren kontura edo komisiopean merkaturatzeko diren.

2.- Udalak nahiz beste Administrazio Publiko batek hala eskatuz gero, jasotzaile den handizkaria behartuta egongo da azokako administrazio bulegoetan deklarazioa aurkeztera, azokan sartutako eta bertatik ateratako produktuei buruz, bertan egindako salerosketen baldintzei buruz, norberaren kontura nahiz komisiopean saldutako merkantziei buruz, eta, orobat, hornikuntzaren alderdiei buruz, Mercavitoria Pescados, S.L.k interesgarri baderitzo.



3.- Orobat behartuta egongo da beste erakunde batzuei ere deklarazioak aurkeztera, indarrean den legediaren arabera galda badiezazkiokete.

40. artikulua.-

1.- Azokan sartzen diren salgaiak oro beren saltokietan saldu beharko dituzte handizkariak, eta ezingo diete ezer saldu bertan erosteko behar bezala baimenduta ez daudenei. Debekatuta egongo da salerosketak zirkulazio bide eta aparkalekuetan egitea.

2.- Saltzaileak, salerosketei ekiten dietelarik, behartuta egongo dira beren saltokietan duten genero guztia salgai jartzera, esan nahi baitu hura ezkutatu izana legez ezarritako mugara arteko isunak jarriz zigortuko dela, eskumena duen agintariak jar lezakeen isunaz gain; izan ere, hari jakitera emango baitzaio gertakaria. Halaber, erantzukizun penal nahiz administratiboari ere egin beharko diote aurre halakok.

41. artikulua.-

1.- Saltokira merkantziak sartzeko nahiz haiek handik ateratzeko bakoitzari dagokion kairaldetik egin beharko da.

2.- Merkantziak garraiatzeko ibilgailuek karga eta deskarga lanak egiteko behar den denbora baino ez dute eman beharko kaltetan.

3.- Ibilgailuen zirkulazioa eta aparkamendua, azokaren esparruan, Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako arauak arautuko dute, eta hark ezartzen dituen sarrera eta egonaldi eskubideak galdatu ahal izango dira.

42. artikulua.-

Salmenta ordutegia bukatu ondoren, gehienez ere 30 minutuko epean atera beharko dira aretotik erositako produktuak.

43. artikulua.-

Erabat debekatuta egongo da hustutako ontziak nahiz bestelako objekturik korridore, kai, bide eta saltokietan uztea.

44. artikulua.-

Saltokien titularren kontura joango da beretzat behar dituzten instalazioak jarri eta ordaintzea, hala nola argindarra, telefonoa, ura eta bestelako zerbitzu pribatuak, bere kontratatatu beharko baitituzte zuzenean.

45. artikulua.-

Azokaren erabiltzaileen kontura joango da bai beren jardueraren bai Mercavitoria Pescados, S.L.rekin nahiz Udalarekin duten hartu-emanaren ondorio diren zergak eta bestelakoak ordaintzea.

46. artikulua.-

1.- Mercavitoria Pescados, S.L.ren kontura izango dira eraikina, bideak eta sare komunak garbitu eta zaintze zereginak.

2.- Saltokien garbiketa titularren kontura joango da, baita hondakinak Mercavitoria Pescados, S.L.k zerbitzua errazteko jartzen dituen ontzietara botatzea ere.

47 artikulua.-

Publizitateak eta kokapen nahiz propaganda karteak behar den udal lizentzia beharko dute.

48. artikulua.-

Mercavitoria Pescados, S. L.k ez du bere gain hartuko azoka n sartutako nahiz bertan utzitako merkantziak zaintzearen ondoriozko erantzukizunik, nahiz eta azoka zaintzapean jarri; halaber, ez du bere gain erantzukizunik hartuko edozein arrazoi dela-eta gerta litezkeen kalte, lapurreta nahiz hondamenen haritik ere.



49. artikulua.-

Saltoki nahiz lekuen erabiltzaileek, Mercavitoria Pescados, S.L.k baimena eman ondoren, haiek hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituzten obra eta instalazioak egin ahal izango dituzte, beren kontura, adierazitako baldintzei eutsirik, baldin eta horrekin dena delako aretoaren ezaugarriak aldatzen ez badira eta besteri kalterik sortzen ez bazaio.

50. artikulua.-

Saltoki nahiz instalazioetan egiten diren obrak, modu iraunkorrean zoruari, hornei nahiz haiek osatzen dituzten gainerako elementuei lotuta geratzen direlarik, azokaren onurarako izango dira.

Halako obra eta instalazioak zorutik, hormetatik nahiz beste elementuetatik kalterik sortu gabe kentzeko modurik ez dagoenean ulertuko da modu iraunkorrean lotuta daudela.

51. artikulua.-

Edozein saltoki nahiz lekuren titularrak onik utzi beharko du bertan obrak egiten, baldin eta azoka ren zerbitzu komunetarako eta zerbitzuaren ohiko funtzionamendurako beharrezko badira

52. artikulua.-

Aurreko artikuluan adierazitako obrak direla-eta baimen baten titularrari ezinezko gertatzen bazaio, guztiz nahiz parte batean, bere jarduera burutzea, saltokiaz baliatzeagatik ordaintzen duen prezioa murriztu egingo zaio, sortutako enbarazuaren arabera.

53. artikulua.-

Saltoki nahiz lekuen erabiltzaileek haiek gaizki erabiltzearen ondorioz beharrezko gertatzen diren konponketak egin beharko dituzte bertan; hala egiten ez badute, Mercavitoria Pescados, S.L.k egingo ditu, modu subsidiarioan, erabiltzaileen kontura, eta haiei ordainaraziko zaizkie.

Azokako edozein instalazio nahiz obratan sortutako kalteak Mercavitoria Pescados, S.L.k konponduko ditu, sortu dituenaren kontura konpondu ere.

VI. ATALBURUA.- Antolakuntza administratiboa.-

54. artikulua.-

1.- Zerbitzu horren zuzendaritza eta ikuskaritza Mercavitoria Pescados, S.L.ren menpeko izango da, eta berari dagokio Araudi hau betearaztea, horretarako beharrezko diren neurriak hartuz.

2.- Administrazio zereginak Mercavitoria Pescados, S.L.k izendatutako kudeatzaileak hartuko ditu bere gain, eta haren aginduetara jardungo dute azoka ko langileek.

55. artikulua.-

Azokari atxikitako langileek, uneoro, erabiltzaileei beharrik gabe enbarazurik ez egiten saiatuko dira, eta, ahal den neurrian, haiek egindako kexu eta erreklamazioei erantzuten ahaleginduko dira, zor zaien begiruneaz.

56. artikulua.-

Honako hauek izango dira kudeatzailearen betekizunak:

- a) Bere menpeko langileak zuzentzea eta zerbitzurako komenigarrien den eran banatzea.
- b) Azokan burutzen den merkataritza-jarduera zaintzea, ohiko bideetatik joan dadin.



- c) Azokako ordena eta garbitasuna zaintzea, baita guztiontzat diren instalazioak behar bezala erabiltzen direla bermatzea ere.
- d) Publikoaren nahiz saltokien titularren kexa eta erreklamazioak jaso eta, behar izanez gero, goragoko organoei helaraztea.
- e) Saltoki eta ibilgailuak ikuskatzeko erraztasunak ematea hartarako gaituta dauden langileei, eta komenigarritzat jotzen dituen ikuskatze-lanak burutzea, baita eskumena duten erakundeek enkargatutakoak ere.
- f) Eragiten dieten komunikazioen berri ematea saltokien titularrei, eta beti ere azokan gertatzen den nolabaiteko muntako edozein gauzaren jakinaren gainean egotea.
- g) Mercavitoria Pescados, S.L.ri eta udal zerbitzuei erraztasunak ematea beren zereginak burutzeko.
- h) Eraikin eta instalazioak zaintzea, horien mantenimendua behar bezala antolatzea, behar den eskuhartze teknikoak galdatzea egoki den moduan, eta egiten diren kalteen eta horien erantzuleen berri ematea.
- i) Azokako administrazioko dokumentazioa, agirien sarrera eta irteera kontrola, saltokien titulartasunak jasotzen dituen Erregistro Liburua eta saltokietako bakoitzaren dosierak — haiei buruzko dokumentazioa bilduko baitute— kudeatzea, eta haietan egiten diren obren kontrolatzea.
- j) Azokako zerbitzuak eskaintzearen ondorioz nahiz saltokiez baliatzearen ondorioz eskatzen diren tasen ordainagiriak luzatzea, eta horiek Mercavitoria Pescados, S.L.ri ematea.
- k) Azokaren funtzionamendua zaindu eta kontrolatzea, eta hori hobetzeko edonolako neurriak aztertzea.
- l) Araudi honen ondorio den beste edozein, eta eskumena duten organoek bere gain uzten dituztenak.

57. artikulua.-

Kudeatzailearen agindupean zerbitzu-beharrek eskatzen duten laguntzaileek jardungo dute, betebeharrak hauekin:

- a) Kudeatzaileak leporatzen edo beren esku uzten dizkieten zereginak burutzea, eta hura bertan ez denean, hura ordezkatzea.
- b) Azokako dependentziak eta zerbitzuak zaintzea, eta erabiltzaileek nahiz saltzaileek Araudiko aginduak bete ditzatela zaintzea, baita kudeatzailearengandik jasotzen dituzten agindu eta zerbitzu-argibideak ere.
- c) Edonork erabiltzeko diren azokako elementu guztien garbitasuna kontrolatzea, eta beren gain uzten diren eskuz egiteko eragiketa eta lanak.

VII. ATALBURUA.- Ikuskaritza sanitarioa.-

58. artikulua.-

Azokan gordetzen, maneiatzen edo saltzen diren janari guztiek, saltokiek, hotz-kamerek, osagarritzako jarduerak eta lekuek, baita salerosketekin zerikusirik duten ontzi eta ibilgailuek ere, ikuskaritza sanitarioak eta hornidura ikuskaritzak jasan beharko dituzte.

59. artikulua.-

Azokako Ikuskaritza Sanitario eta Hornidura Ikuskaritzetarako Zerbitzua, albaitari titularreri egokitutako eskumenak salbu direla, Udalak hartarako izendatutako langile eskudunek eskainiko dute, eta honako hauek izango dira zerbitzu horren eginkizun:

- a) Janarien egoera sanitarioa aztertzea.
- b) Saltokien, instalazioen eta besteren baldintza higieniko-sanitarioak ikuskatzea.
- c) Herritarren osasunerako arriskurik ekar lezaketen arrainak dekomisatzea.
- d) Egindako ikuskaritzei dagozkien aktak jasotzea.
- e) Egindako ikuskaritza eta analisisien emaitzei buruzko txostenak egitea.

60. artikulua.-

Zerbitzuak bere ekimenez nahiz salaketaren bat jasotzen duelarik jardungo du, arauhauste sanitarioei buruzko araudiari jarraiki, eta kontsumitzailea babesteari, salerosketei, ormalizazioari, dokumentazioari eta saltze baldintzei, kalitateari, iruzurrari eta besteri dagokienez, berriz, une bakoitzean indarrean den legediari jarraiki.

Erreklamazioak aintzat har daitezten, merkantziak azokatik erretiratu aurretik egin beharko dira, eta erosketa-txartela erantsi beharko zaie.

61. artikulua.-

Saltzaileek ezingo diete kontra egin ikuskaritzei, ezta, hartarako arrazoirik izanez gero, merkantzien dekomisoari ere.

Ezingo da salmentan jarri inongo arrain partidarik aldeztu aurretik udal ikuskaritzaile sanitarioak aztertu gabe, eta haren karguko zereginekin zerikusia duten kontu guztiak hark ebatzi beharko ditu.

62. artikulua.-

Arrain Azoka Nagusian diharduten albaitariak Erregistro Liburuak izango dituzte, eta bertan jasoko dute, egunez egun, beren ikuskaritza lanetan egiten dituzten analisi eta dekomisoak, arraina nondik ekarria den, zein motatakoa eta pisukoa den, nori dekomisatu zaion, ez bakarrik estatistika xedeei erantzuteko, baizik eta orobat interesatuek eskatzen dituzten ziurtagiriak emateko, legeetan xedatutakoaren ildotik.

Egoera onean ez dauden arrainen dekomisoak eta baztertzeak handizkariari izendatutako lekuan bertan egingo dira, eta eragiketa gauzatu ondoren, ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

63. artikulua.-

Egoera txarreko deklaraturako arrainak desitxuratu egingo dira, Albaitaritza Ikuskariak xedatzen duenaren arabera, horiek baliatzerik izan ez dadin, baita suntsitu ere, kontsumitzerik izan ez dadin.

64. artikulua.-

Parte batean akastutako merkantziak ezingo dira salgai jarri aldeztu aurretik ikuskaritza sanitarioa gainditu gabe; hark zehaztuko ditu merketze arrazoiak eta portzentajeak, dagokien kalitate sailkapena eta merkaturatzeko gai diren, industriarako edo bestelako erabileretarako.

65. artikulua.-

Halaber, xedapen sanitarioetan aurreikusitako kontsumo baldintzak betetzen ez dituztela eta merkantziak dekomisatzen zaizkien saltoki-titularrak behartuta egongo dira produktua Udalak hartarako izendatutako lekura garraiatzera.

66. artikulua.-



Zerbitzuaren jarduera guztien akta egingo da, eta bertan zehaztuko ikuskaritzaren nondik-norakoak, batez ere laginak hartzeko metodoa, kopurua eta modua, baita jardueraren berri emateko beharrezkotzat jotzen diren gainerako datuak ere.

Interesaturen batek hala eskatuz gero, ikuskaritza oinarritu deneko laginen berdinak emango zaizkio, ziurtaturik.

Hala eskatzen duten interesatuei ikuskaritza aktaren nahiz albaiariaren txosten teknikoaren kopia ziurtatuak egingo zaizkie.

VIII. ATALBURUA.- Hutsegiteak eta zigorrak.-

67. artikulua.-

Azokaren erabiltzaileak berek nahiz beren familiakoek edo beren zerbitzura dituzten soldapekoek egiten dituzten arau-hausteen erantzule izango dira.

Erabiltzaileek Araudi honetan nahiz Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako xedapenetan jasotako betekizunak betetzen ez dituztelarik, zigorrak jarri ahal izango zaizkie, azoka barruan dena delako jarduera galarazteraino iritsi ahal izango baitira, baita lizentzia kentzeraino ere.

68. artikulua.-

Honako hauek joko dira arau-hauste arintzat:

- a) Eskandalurik sortzen ez duten eztabaida eta sesioak.
- b) Pertsonen nahiz saltokien garbitasunarekiko axolagabekeria.
- c) Azokako zuzendaritza emandako jarraibideak ez betetzea.
- d) Ohitura onen eta gizalegearen kontrako portaera inoizkoa.

69. artikulua.-

Honako hauek joko dira arau-hauste larritzat:

- a) Edozein arau-hauste arinen errepikapena.
- b) Azoka barruan eskandalua sortzen duten eztabaida eta sesioak.
- c) Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako arauak nahiz zuzendaritza organoetatik jasotako aginduak ez betetzea.
- d) Mercavitoria Pescados, S.L.ko langileei irain egitea.

70. artikulua.-

Honako hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:

- a) Edozein arau-hauste larri errepikatzea.
- b) Mercavitoria Pescados, S.L.k emandako arauak nahiz zuzendaritza organoetatik jasotako aginduak behin eta berriro ez betetzea.
- c) Uste dongean edo axolagabekeriaz, kalteak sortzea eraikuntzan, saltokietan nahiz instalazioetan.
- d) Iruzur egitea, saldutakoen kopuruari nahiz kalitateari dagokionez.
- e) Aurreko atalean adierazitako agiriak ez aurkeztea, edo guztiak ez aurkeztea.
- f) Erosleei eragiketari dagokion txartela ez ematea.



- g) Araudi honetako 35. artikuluko b) atalean eskatzen diren agiriak ez edukitzea, edo Mercavitoria Pescados, S.L.k nahiz Udalak zehazten dituzten baldintza eta formalitateak ez betetzea.
- h) Lizentzia eskubideak besteren eskutara aldatzea, alokatzea nahiz berrakuratzzea edo uztea.
- i) Baimenik gabe saltokia zazpi egunetik gora itxita edukitzea, aldeztatik Mercavitoria Pescados, S.L.ri abisu eman gabe, arrazoi justifikatua izanik salbu.
- j) Saltokien garbitasunaren eta horiek zaintzearen alorreko betekizunak behin eta berriro edo modu larrian haustea.
- k) Betebehar sanitarioak behin eta berriro edo modu larrian haustea.
- l) Indarrean diren prezioak ez ordaintzea.
- m) Salerosketak esleitutako saltokitik kanpo egitea, behin eta berriro.
- n) Mercavitoria Pescados, S.L.k aldeztatik baimena eman gabe edonolako obrak egitea.
- o) Langileen eta gizarte-gaien alorrean indarrean den legedia ez betetzea.

71. artikulua.-

Araudi honetan aurreikusitako arau-hausteak eta osagarritzko gainerako xedapenak, Udalak behar den dossier administratiboa bideratu ondoren, hautsitako arauan zehazten den eran zigortuko dira, edo, bestela, ondorengo artikuluetan ezarritako arauen arabera.

72. artikulua.-

Hauek izango dira aplikatuko diren zigorrak:

- a) Hutsegite arinak:
 - 1.- Ohartarazpena.
 - 2.- 100 pezetatik 5.000 pezetara bitarteko isuna.
- b) Hutsegite larriak:
 - 1.- 5.001 pezetatik 15.000 pezetara bitarteko isuna.
 - 2.- 2-5 egunez bertan jardutea nahiz azokara sartzea galaraztea.
- c) Hutsegite oso larriak:
 - 1.- Lege xedapenek uzten duten gehienezko kopurura arteko isuna.
 - 2.- 60 egunerako salmenta bertan behera utzi eta saltokia ixtea.
 - 3.- Lizentziaren indarraldia laudeneraino murriztea.
 - 4.- Lizentzia iraungi edo kentzea.

73. artikulua.-

Salgaien nahiz tresnen kautelazko bahiketa eta dekomisioa beti aplikatuko da 70. artikuluko k) eta d) ataletan aurreikusitako arau-hausteak egokitzen direlarik.

Baimenik gabeko obrak egiten ari direla-eta dosierra abiarazten delarik, bertan behera geratuko dira haiek.

74. artikulua.-



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 1999/09/17

ALHAO, 129 zk. 1999/11/03

Baimendutako tartearen barruan, arau-haustearen larritasuna, sortutako kalteak, isunaren gai den eragiketaren zenbatekoa, arau-hauslearen portaera eta bestelako gorabehera eta aurrekariak aintzat harturik zehaztuko da isunen zenbatekoa.

75. artikulua.-

Vitoria-Gasteizko Udalaren eskumena izango da zigorrak ezartzea.

76. artikulua.-

Egindako arau-hausteen kontra joateko ekintza bost urteren buruan preskribituko da, arau-haustea egin zen egunetik kontatuta. Preskripzioa etenda geratuko da arau-hausle bide denaren kontrako ekintzari ekiten zaion unean.

Prozedura zigortzaileari ekiten zaiolarik, eta sei hilabete igarotzen direlarik interesatuari tramiteetako edozein berri ematen zaionetik, hurrengoari ekin gabe, iraungi egingo da hura, eta artxibatu jarduerak.

Vitoria/Gasteiz, 1999ko irailaren 29a